

BERGARAKO 2030 AGENDAREN PLAN ESTRATEGIKO JASANGARRIA ADOSTEKO PROZESUA

HERRITARREN INGURUMEN ALDERDIEI BURUZKO MAHAIAREN 2. BILERA

Bertaratutakoen zerrenda:

- Larraitz Uribesalgo (Herri hezitzailea)
- Aiert Lizarralde (Mekolalde auzoa)
- Iñaki Madinabeitia (Mendia Bizirik Elkartea)
- Aitor Aldazabal (Kukubaso elkartea)
- Joseba Susaeta (Kukubaso elkartea)
- Andoni Larrañaga (Ikerlekuko auzokonpostaren erabiltzailea)
- Nerea Egia (Udaleko Ingurumen-teknikaria)
- Leire Garmendia (Izadi 21 aholkularitza-taldea)
- Edurne Simón (Izadi 21 aholkularitza-taldea)

Bileraren hasiera-ordua: 18:00.

Udalak kontratatutako aholkularitza-enpresak "Bergara 2030 egin herrixa" prozesuaren baitan orain arte emandako urratsak azaldu ondoren, orain arteko mahaietan (udaleko gaikako batzordeetan nahiz herritarren gaikako mahaietan) jasotako ekarpenetan oinarrituz diseinatu berri duen Plan Estrategiko jasangarriaren 1.zirriborroa aurkeztu du eta ale bana banatu die bertaratutakoei.

Saioren lehen zatian ingurumen alderdiei lotutako gaiekin erlazioa duten 2 jarduera programak aztertu eta lantzeko aukera ireki da. Honela, herritarrek jarduera-lerro bakoitzaren baitan jasotako ekintzen inguruko ekarpenak egin dituzte eta horien artean eztabaidatzeko aukera izan dute.

Hauek dira jaso diren ekarpenak:

Saioaren bigarren zatiaren helburua gertuko etorkizunean ezinbesteko garrantzia izanik lehenetsi beharreko ekintzak identifikatzea izan da. **Hona hemen jarduera programa bakoitzean egin diren ekarpenak:**

1.4. Jarduera programa: **klima-aldaketa arintzeko energia-trantsizioa ahalbidetu eta klima-aldaketara egokitzeko baliabideak definitu**

- 1.4.1. Ekintza: Udal eta udalerrri mailako energia-plangintza osatzea, klima-aldaketa barne hartzen duena

Diagnostikorako garrantzitsua litzateke energia iturri ezberdinen azterketa egitea, hauen benetako jatorria, egon daitezkeen alternatiba ezberdinak, etab. ikertuz.

Energia kontsumo ezberdinei buruzko datuei dagokionean Udalez gaindiko erakundeei ematen dituzten datuak fidagarriak izatea eskatu beharko litzaieke. Energia kontsumitzaile handienak diren sektoreen datuak izatea garrantzitsua da (industria, garraioa, etab.).

Energia plangintzan barneraturik joan beharko lirateke klima-aldaketari aurre egiteko neurriak, Berotegi Efektuko Gasak murriztera eta klima-aldaketaren ondorioetara egokitzera begirakoak.

Ahultasun energetikoaren gaia aztertu beharko litzateke, familia batek bizitza duin bat mantentzeko behar duen energia kontsumoa zehaztu eta hau bermatzeko neurriak hartu beharko lirateke. Hausnarketa honi loturik, herritarrek ez ezik bestelako sektoreek duten gaur egungo energia kontsumoa guztiz beharrezkoa ote den jarri da mahai gainean, eta nahi dugun guztia kontsumitu behar ahal dugun ere. Aurrekoez gainera, gutxiago kontsumitu ahal dezakegun ere planteatu da.

1.4.2. Ekintza: energiaren aurrezpena eta eraginkortasuna bultzatu.

Kale argiteriaren arrazionalizatzea garrantzitsua da, ez baita ez toki guztietan ez momentuetan gaur egun jarrita dagoen argiteria behar izaten. Arrazionalizazio honen muga puntu beltzak (segurtasun gutxiko guneak) izango lirateke, hauek behar bezala argizatzea beharrezkoa baita. Hiri plangintzan aztertu beharreko gaia dela ere aipatu da. Aholkularitza-enpresako kideek aipatu dute Jasangarritasun Energetikoaren EAeko Legeak ezartzen duela hirigintzako plan orokorra berritzeko unea iristen denean energia arloko azterketa bat egi behar dela.

1.4.3. Ekintza: Energia iturri berriztagarrien aldeko apustua egin.

Berriztagarrien aldeko apustua garrantzitsua bada ere aurretik dago energia aurrezpena eta eraginkortasuna. Hori dela eta, aholkularitza-taldeak ekintza beste modu batean berridatziko du.

1.4.4. Ekintza: Udal larrialdi-plana berrikusi eta klima-aldaketaren aldagaia txertatu.

Herritarrentzako arreta bulego moduko bat sortzea ondo legoke herritarrek ere aurrezpenean, energia berriztagarrien ezarpenean pausak ematen has daitezen eta energiaren gaian zalantzak argitzeko, aholkularitza eskaintzeko, etab. (adibidez Oarsoaldea eskualdeko energia bulego birtuala). Udala eta herritarrak kontsumitzaile ezezik ekoizle izateko aukerak aztertzea ondo legoke (egun, gero eta gehiago erabiltzen da "prosumitzaile" kontzeptua). Eskualdeko energia mahaia martxan denez bertan landu daitekeen gaia da.

Klima-aldaketari egokitzeko bero-uharteak sortzea beharrezkoa da eta horretan asko lagunduko luke hiri barruan berdeguneen sarea osatzeak (ekintza hau 1.3. jardueraren programan zehazten dela aipatu du aholkularitzak). Hiriko berdeguneek klima aldaketaren aurrean egokitzeko egin dezakeen ekarpenaz gainera herritarren osasunerako eta ongizaterako hainbat onura ekar ditzake (honi loturik trafikoa baretzeko neurriak hartzen badira, adibidez), eta baita biodibertsitatea handitzeko ere.

1.5. Jarduera-programa: **natur baliabideen erabilera arduratsua sustatu, herritarren osasuna eta herriaren ingurumen kalitatea zainduz**

1.5.1. Auzokonpostaren ereduak birdiseinatu.

Auzokonposta guneen gainbehera ikusten da eta honen arrazoiak ugariak dira: jarraipen falta, karraskarien presentzia, konpostaren erabilera, tasaren gaineko hoberi eskasa, etab.

Auzokonpostaren birdiseinuan konpostaren ondorengo erabilera-aukerak aintzat hartu beharko lirateke. Proiektuan den baratza-parkean ez ezik Udalak erosiko litzatekeen lurretan erabili ahal izango litzateke, auzokonposta proiektua borobilduz eta balioa emanez.

1.5.2. Debagoieneko Mankomunitatearekin elkarlanean birziklapenean sakondu eta bestelako hondakin-zatikien birziklapena aztertu.

Birziklapena kontzeptuaren ordezkari gaitasun biltzaile erabilitea adostu da. Benetan gaia biltzen dugun horretatik zenbat birziklatzen den ez da ezagutzera ematen eta beharrezkoa litzateke modu erraz batean gaia biltzen dena eta birziklatzen dena herritarrei komunikatzea.

1.5.3. Debagoieneko Mankomunitatearekin industria-hondakinen azterketa eta jarraipena egin.

1.5.4. Kontsumo eredu berriak sustatzeko programa pedagogikoak eta proiektu pilotuak abian jarri, baliabideen kontsumoa murriztean (ura, energia, etab.) eta ekonomia zirkularrean oinarrituak:

1.5.5. Ur zikinen eta hauen arazketaren azterketa bat egin, hiri barruko puntuak araztegi bideratuz eta landa eremuko etxebizitzetan filtro biologikodun hobi septikoak ezartzeko neurriak hartuz.

Baserritarrei ezin zaie behartu hobi septikoak jartzera, ez zaie eta oinarritzea den edateko ur sarerako lotura bermatzen. Lagundu egin beharko litzateke nolabait, gaur ematen zaienaz haratago, eta zein aukera dituzten aztertu beharko litzateke.

Ur zikinen kontrolaz gainera, erreka eta orohar, gainazaleko ur guztien kalitatea bermatzeko, jarraipena egin beharko litzateke. Iturburuak eta errekaen babesa ezinbestekoa da.

1.5.6. Ur emarien neurketak egin Klima-aldaketari begira ur eskaria handitzeak ekar ditzakeen arazoei aurre hartzeko.

Ekintza honen idazketa aldatuko du aholkularitza-taldeak, ura baliabidearen kontsumo arduratsuen garrantzia azpimarratzeko (uraren kultura berria aintzat har dadin eta aurrezpenari bultzada eman dakion). Ekintzaren baitan, ondorengo jarduerak ere jasoko lirateke:

- Edateko ura bermatzea
- Uraren kontsumoaren kontrola, murrizpena, etab.

- 1.5.7. Ur deposituak (Albitxukoa) martxan jarri eta mantentzea klima-aldaketaren aurrean bigarren aukerako ur iturri moduan izan dezaketean garrantzia aintzat hartuz.

Guztiak ez daude ados ekintza honekin. Urkulutik lortzen den edateko urak nahikoa beharko luke, ahal dela bestelako iturburuak ukitu gabe.

Ur sarea baserri multzo batzuetara eramateko bideragarritasuna aztertzea ondo legoke. Ur agentziari eskatu beharko litzaioke baserrien ur lizentzien bitartez erabiltzen dituzten iturburuetatik zenbateko kontsumoa egiten duten.

- 1.5.8. Uraren ustiapen jasagarria sustatzeko hiriko drainatze sistemak ezarri (SUD-ak)
- 1.5.9. Zarata-mapa berrikusi, zarata-iturri ezberdinak aztertuz eta zaratak ekiditeko neurriak hartuz.

Zarata mapa oso zehatza da, ondo zehazten ditu zarata iturri nagusiak: trafikoa eta industria. Horien gainerako neurriak aurrera eraman beharko lirateke, kalitate akustikoaren helburuak lortu ahal izateko.

Mugikortasun planaren baitan kontuan hartu beharko lirateke zarata-mapan agertzen diren neurrietako asko (1.2. jarduera programan).

- 1.5.10. Ingurumen kalitatea (aire garbia, zarata gabea, etab.) bermatuko duten babesguneak sortu zaugarrienak diren herritarrei eta natur elementuei begira (eskola eremuak, helduen bilguneak, bizitokiak, aisialdirako eremu eta ibilbideak, erreka ingurua, hiri inguruko basoak, etab.).

Ingurumen kalitateaz ari garenean ez da hiri gunea soilik aintzat hartu behar eta udalerrri osoko kalitatea bermatu beharko litzateke.

Baliabideen kontsumoarekin loturik erabiltzen dugun lurzorua kontsumoaz hitz egin beharko litzateke. Hiri plangintza berrian aurrerantzean zenbat lurzoru gehiago erabili behar dugun zehaztu beharko litzateke, muga bat jarritz. Hau da, aztarna ekologikoaren aldagaia ere aintzat hartu beharko litzateke plangintza berrian.

Ekintza hau hiri antolamenduari loturik egonik, 1.1. programan barneratzea proposatzen du aholkularitza-taldeak.

Saioaren bigarren zatia helburua gertuko etorkizunean ezinbesteko garrantzia izanik lehenetsi beharreko ekintzak identifikatzea izan da. **Hona hemen jarduera programa bakoitzean lehenetsi diren ekintzak:**

1.4. Jarduera programa: klima-aldaketa arintzeko energia-trantsizioa ahalbidetu eta klima-aldaketara egokitzeko baliabideak definitu

1.4.1. Ekintza: Udal eta udalerrri mailako energia-plangintza osatzea, klima-aldaketa barne hartzen duena

1.4.2. Ekintza: energiaren aurrezpena eta eraginkortasuna bultzatu.

1.5. Jarduera-programa: natur baliabideen erabilera arduratsua sustatu, herritarren osasuna eta herriaren ingurumen kalitatea zainduz

1.5.2. Debagoieneko Mankomunitatearekin elkarlanean birziklapenean sakondu eta bestelako hondakin-zatikien birziklapena aztertu (birformulatua)

1.5.5. Ur zikinen eta hauen arazketaren azterketa bat egin, hiri barruko puntuak araztegia bideratuz eta landa eremuko etxebizitzetan filtro biologikodun hobi septikoak ezartzeko neurriak hartuz (birformulatua).

1.5.6. Ur emarien neurketak egin Klima-aldaketari begira ur eskaria handitzeak ekar ditzakeen arazoei aurre hartzeko (birformulatua)

1.5.8. Uraren ustiapen jasangarria sustatzeko hiriko drainatze sistemak ezarri (SUD-ak)

1.5.9. Zarata-mapa berrikusi, zarata-iturri ezberdinak aztertuz eta zaratak ekiditeko neurriak hartuz.

Saioari amaiera eman aurretik, aholkularitza-enpresako kideek herritarrekin antolatuko den hurrengo saioa uda ondoren antolatuko den herri-batzarra izango dela aipatu dute. Udaran zehar Udalak Plan Estrategiko Jasangarria landuko duela eta udara ondoren herri-batzarrean planaren aurkezpena egingo dela adierazi dute.

Honenbestez, parte-hartze saioa 20:30etan amaitu da.